

UREZTATU ALA EZ

Landareek ura guztiz beharrezkoa ote dute, nabari al zaie ur falta dutenean eta soberan dutenean?

Esperimentu honetan, landare bat ur kopuru egoki batekin haziko dugu eta besteari ur gutxiago botako diogu.

Materialak

- Tamaina berdineko bi lorontzi
- Lorontzietako substratua
- Bi landare (barazki, lorea...)
- Ureztigailua

Prozedura

Behin landareak lorontzian ipinita, leku eguzkitsu batean kokatuko ditugu eta edozein arrazoiagatik lekuz aldatzen baditugu leku berera eramango ditugu. Oso garrantzitsua da, landare biak leku eta egoera berean egotea.

Landare baten substratua beti heze mantentzen saiatuko gara (behatzarekin ukitu eta hatza zikindu behar du), bestea aldiz lehorrago mantenduko dugu. Egokiena, bat egunero apur bat ureztatzen dugunean bestea bi egunean behin ureztatzea da.

Egunero argazki bat aterako diegu bi landareei eta beraien bilakaera alderatuko dugu. Bestetik zuzenki batekin landarearen altuera neurtuko dugu eta taula batean apuntatu.

Eztabaida

- Zer eragin izan du urak landareetan?
- Aldaketa nabarmenik pairatu al du landare lehorrak?